

BERRIGARA

112. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, ekainak 18

LANBIDE
HASTAPENA
PROGRAMA
16-17 URTEKO
LANGABETUEI
ZUZENDUTA

IÑIGO
ZAITEGI
BERGARA
K.E.KO
PRESIDENTE
BERRIA

KIROLAK

UDA
KANPAINA 93:
KIROLA
UZTAIL
OSOAN ZEHAR



Arau subsidiarioak eztabaidan



NERE AUTOA IZANGO BAZINA
OPEL CORSA BERRIA
IZANGO ZINATEKE

OPEL BERRIA
CORSA

NIRE AUTOA!

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Ifnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Ifnoak: 79 05 86
DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

DIENBORAREN PODERIOZ OPEL KONZESIONARI OFIZIAIAK HOBIAK

- Maiatzaren 8an, 338 bazkide.
- Maiatzaren 18an, 423 bazkide.
- Astero-astero 14 bazkide gehiago.



Izan zaitez hurrengoa.
JARDUN gurekin



IZENA.....
 ABIZENAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....
 ADINA.....
 TELEFONOA.....

MOZTU ETA BIDALI JARDUN
 ELKARTERA (MASTERREKA 13.
 76 08 19)

BAZKIDE KUOTA: 4.000 pzta. URTEAN. (IKASLEEK 500 pzta.)

BERRIGARA astekaria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotaldea
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea. Masterreka, 13
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.
Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:
E. Azkarate eta E. Mendibil.
Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,
Estepan Plazaola, M. A.
Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J.
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.
Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.
Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA
Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599
BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

IGERILEKUAK

Udaletik esan digu-
tenez, larunbatean, hil-
lak 19, zabaltzekoak
ziren kanpoko igerile-
kuak. Ekainaren 2an,
eguzkia hartzeko, guz-
tientzat zabaldu bazi-
ren ere, bihartik aurrera
bainua hartzeko aukera
izango dute Udal Kirol
Zerbitzuko bazkideek
eta sarrera (525 pta.
nagusiak eta 350 18
urtetik beherakoak)
edota 10 egunerako
bonoa (4.300 pta. na-
gusiak eta 2.675 gaz-
teak) ordaintzen duten
guztiek.

Bihar beraz udako
denboraldiari hasiera
emango zaio. Irailaren
erdialdera arte zabalik



egongo dira, goizeko
10.30etatik 21.00etara.
Udal Kirol Zerbitzuak
emandako datuen ara-
bera, 32.000 sarrera
inguru zenbatu ziren
iazko udan, eguneko
347 laguneko batz
bestekoarekin.

Bihar larunbata zabalduko dira bainurako kanpoko igerilekuak

ITURRI ONETIK

Sierbek Bergara utziko dute

Mariaren Sierbek bizpahiru hilabete barru gure
herria utziko dutela baieztatu digute. 10 monja dira
bertan eta beren esanetan, "gero eta zabarragoak
gara eta ez dago bokaziorik burrungo belaunaldien
artean. Pena da, 96 urte inguru eman bait ditugu
hemen baina gaurko egoera ikusita gure nagusiak
hala erabaki du". Oraindik nora joango diren ez
dakiten arren, Azpeitia, Bilbo, Donostia edota
Portugaletera joan daitezke. Etxea saldu egingo dute.

ESAN DUTE

"Askotan pentsatu
izan da orkestra
zuzendari bati ez
zaiola musika
moderno gustatzen,
eta hori ez da horrela.
Jazza asko entzuten
dut, baita rock and
rolla ere, eta
honelako kontzertuak
entzuteko aukera
edukiz gero joan
egiten naiz. Gainera,
Bandan eta Orkestran
gazte asko dago eta
hauek euren rock
talde propioak dituzte
eta, euren giroan
mugituz, denok elkar
hobeto ezagutu
dezakegu"


ALFREDO GLEZ.
Musikaria
EGUNKARIA

"[Codorniceseko
egoerari buruz]
Oraingo baldintzak
onartu ezkeru,
abuztuaren 31ra arte
lanean kobratzeke
egon eta gero kalera
joango ginateke"

LAB
Sindikatu
EGIN



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinak eta
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



¡VIVEN!

Ostirala: 17.00, 19.30 eta
22.30.

Larunbata: 17.00 eta 19.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta
22.15.

Astlehena: 19.30

Zinea

▼▼ 1972an Andeeetan gertatutako istripuan eta ondoren **Piers Paul Readek** idatzitako nobelan oinarriturik, baldintza txarrenetan gazte talde batek bizirik nola irten zuen kontatzen zaigu **Walt Disneyren** produktu honetan.

Erakusketak

▼ **Benita Gallastegiren** *Euskal Herriko paisajeak* izenburuko margo erakusketa Nahiketa tabernan.

Farmaziak

▼ **Larunbata 19:**

Puy/Morales.

▼ **Igandea 20:**

Puy/Azkoaga.

▼ **Astlehena 21:**

Guallar/Español.

▼ **Asteartea 22:**

Estella/Corcuera.

▼ **Asteazkena 23:**

Mozos/Irizar.

▼ **Osteguna 24:**

Camacho/Amezua.

▼ **Ostirala 25:**

Puy/Morales.


▼▼ Analista Taldeen Euskadiko **Xake** Kopako finala jokatu da larunbatean, 4retatik 8etara bitartean, Zabalotegiko dorrean: *Renteria-Basauri* (ixapelduna erabakitzeke) eta *Bilbo-Irun* (3. eta 4. postuetarako)



Xakezaleek konpetizio berri batekin gozatzeko aukera dute.

Ogia

▼ **Igandea 20:** Konde.



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

Kirolak

▼ Futbitoa:

- Os Jardineiros-Toki Eder (Kopako finala). **Larunbatean** Betan Kiroldegian.
- Madura-Toki Eder (Ligako 3. eta 4. posturako). **Igandean** Setan.
- Usoa-Eusebio II (Ligako finala) ondoren.
- Elgetako finalak larunbatean: Tximistak-Jotake (gazte mutilak, 15.30etan), Txalaxok-Gazteak (gazte neskek, 16.30etan) eta Txapela-Patxi taberna (gizonak, 17.30etan).

▼ Pala:


- Pala txapelketako finala igandean 12etan Osintxun.

Ikastaroa

▼ **Bideo Ikastaroa** antolatuta da Kultur Etxean ekainaren 29tik uztailaren 26a bitartean. Bi ordu emango dira egunero arratsaldetan eta izena eman nahi duzuenok hurbil zaitezte Bideo Gelara osteguna, hilak 24, baino lehen. Prezioak: 4.000 pzta eta 2.000 langabetuentzat.



Os Jardineiros.



PROFESIONALAK

- Ansotegi-Astarloa/Koka-Azkarate.
- Unanue-Zezeaga/Etxaniz-Errasti (ETB).
- Intxaurren-Errasti II.a /Badiola I.a-Alberdi III.a.

Larunbatean arratsaldeko 16.45etan Frontoian.

Aukeran

▼▼ Cancer Moon

taldearen eskutik rock kontzertua iragarri da ostiralean gaueko 10.30etan Infernukua tabernan. Hurrengo asteetan etor daitezkeen beste kontzertu batzuen lehendabizikoa da hau.

Gogoratuko duzue, Bergarako jaietan izan zen, orain dela bizpahiru urte Euskal Herriko talderik freskoena bezala bataiatua izan zen taldea. Lehen mailako rocka dastatu nahi baduzu ezin dezakezu hutsik egin.



anezka

Udazkenerako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pazkuetako zezenketa arrakastatsua

Igandeko zekorketari esker jatetxeak bete egin ziren.

Pazkuetan antolatutako zezen-festak guztiz arrakastatsuak izan ziren. "Zezenzaleak" taldeak eskerrak eman nahi dizkio Jai Batzordeari zekorketa antolatzerakoan taldearengan jarri zuen konfidantzagatik eta zezen plazan izan ziren ekitaldien kontrolaz arduratzeagatik.

Hogeitazortzi urtetan zekorketarik gabe egon ondoren pozgarria izan da zezen plaza jendez beteta ikustea. Antolatutako ekitaldi bakoitzean 1.400 lagun egon ziren, bataz beste. Garbi dago, beraz, bergararrek harrera ezin-hobea egin dietela jaietan izan diren nobedadeei.

Hiru entzierroak, zekorketa eta astelehen eta astearte arratsaldeko ekitaldiak kontatuta 8.500 bat lagun izan ziren plazan. Ez dakigu noizbait izan den halako jendetzarik baina bai aspaldian, behintzat, ez dela izan. Esan beharra dago, bestalde, igandean, entzierro eta zekorketarekin izan zen giroa, guztiz bikaina izan zela. Inoiz ere ez da izan halako jai-girorik Bergarako kale, taberna eta jatetxeetan Pazkuetako igande batean.

Eta, zezen festetara joan zen jendemultzo handi horri esker, "Zezenzaleak" taldeak Mizpirualde Egoitzan bizi

diren guztiei bazkari-eder bat eskeini ahal izango die. "Zezenzaleak" taldeak badaki hori, berez, gauza gutxi dela baina bere gutxian, jaion antolaketan lan egin zutenen ahaleginaren fruitu da. Hala bada, hil honen 27an, Mizpirualde Egoitzan honako egitaraua izango duen jai-eguna ospatuko dugu: eguerdiko ordubatean, Musika Eskolako bandarekin kontzertua eta ondoren bazkaria. Kafearen ondoren, zekorketaren eta entzierroaren uneak jasoko dituzten bi koadro entregatuko zaizkio Egoitzari eta ondoren dantzaldia izango da.

Zezenzaleak

Bizikleta martxa Debara

Euskal Herriko ibaien egoera kezkarria da hauen kutsadura maila dela eta, horregatik ezin dugu hauen etorkizunerako esperantza gehiegi eduki. Gaur egun, gure ibaiak inkontrolaturiko hondakindegia direla esan daiteke. Europako ibaien artean, gureak kutsatuenak dira.

Ikertuta dauden garbiketa proiektuak praktikan jartzen ez direnez, eta instituzio eta errekurtso publikoen arteko lehia kompetentzialak direla eta, gure ibaiak hilzorian daude.

Deba ibaia, orain arte esandako guztia barne legoke. Isurketa industrialak eta populazioarenak direla eta, Deba ibaia gogorki kutsatua dago.

Aranzadik Gipuzkoako ibaien egoeraren berri ematen duen instituzioak dioenez

gure ibaia probintziako txarrena da. Bere arroan dituen establezimendu industriek eguneko 46.000 m³-ko karga kutsatzailea (gehienbat inorganikoak) botatzen du, eta horri isurketa desjarrakia batu behar zaizkio, urtean 36.000 m³-koak direlarik. Baina gauzak ez dira hor gelditzen, Aranzadiren informetan hau esaten da: "ibai eta erreken bilduma bat dago hauen kontserbaziorako interes handia dagoelarik. Ibai-adarrak ondo zaintzea beharrezkoa da, ez bakarrik ur-kalitateari begira, baita uretorriaren tankeran, erribera, arro eta beste kontu batzutan ere.

Deba ibaiaren berreskurapena posiblea da baina soluzioak ez dira abordatzen instituzioen artean lehiak kompetentzialak planteatzen direlako eta errekurtso publikoen etorkizuneari beste lehentasun batzuk markatzen direlako. Gainera, Deba ibaian, kutsaduraren arazo larriaz gain, bideraketa basatiak, dragadoak, landaretzaren bazterketa, lixibiatu inkontrolatuak..., etab. aurkitzen ditugu. Aurten, jai-giro erreibindikati boan XV. aldiz Debara bizikleta jeitsiera antolatu dugu ekainaren 27rako.

Deba Garaiko talde ekologistak

Tiira ba!



Udal euskaltegia

Bergarako Udal Euskaltegiak udako ikastaroak iragarri ditu uztailaren 1etik 28ra. Maila guztiak emango dira, goizez, 5 orduz, eta matrikula epea ekainaren 25era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago Bidekurutzeta 27 edota 764453 telefono zenbakian jaso dezakezue.

San Martzial eguna

Uztailaren 4ean San Martzialgo kanpan jarriko den taberna hartzeko interesa duten talde herrikoi eta asoziazio benefikoez beren eskaerak ekainaren 18ko 12ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte Erregistro Okororean.

Plenoak arau subsidiarioen hasierako onarpena eman zuen

Astehenean Kultur Etxean eginiko Ez-Ohizko Plenoan, Udalbatzak arau subsidiarioei hasierako onarpena eman zien, EAJ eta HBren aldeko eta PSE-EE eta EAren kontrako botoekin. Arauetan ordenazioz kanpo geratzen diren Fraisko zuriko 3, 4 eta 5 zenbakietako etxebizitzetako jende ugari bertan izan zen, beraien eskubideak aldarrikatzeko asmoz.

Herriaren ordenazioa esplikatzeke egin den bideoan (Irizar Jauregian ikus daiteke) jasotzen den bezala, Fraisko zuriko etxebizitzetaz gain, San Antonioko 2. zenbakitik 10era doazenak eta Zubietako 5. zenbakitik 31.era artekoak ordenazioz kanpo uzten dira. Eusko Alkartasuna eta PSE-EEk beren kontrako jarrera azaldu zuten, etxebizitze-




Arau Subsidiarioen arabera Lasagabastereneko lantegi zaharra desagertu egingo da etxeak eraikitzeko.

tako jabeei irtenbide bat aurkitzen ez zaien bitartean. HBk berriz, boto esplikazioan, arauen puntu guztiekin ados ez dagoela aurreratu eta, era berean, aipatutako etxebizitzekin sortzen den arazo sozialari irtenbide bat aurkitzeko beharra azpimarratu zuen. EAJek, berriz, Victoriano Gallas-

tegi alkatearen bitartez, bere poza azaldu zuen onarpenagatik eta irailaren 30era arte alegazio guztiak aztertu eta eztabaidatzeko epe bat zabalitzen dela gogorarazi zuen. Fraisko zuriko lagunek, berriz, Plenoan erabakitakoa beren interesen kalterako dela adierazi zuten.

Ibilgailu zaharrak izarrak

Benetan oso arrakastatsua izan zen astebukaeran Bergara Racing taldeak antolatutako ibilgailu zaharren kontzentrazioa. Gipuzkoa, Errioxa edota Frantziatik etorritako 15 partaide inguruk txundituta utzi zuten jendea Frontoian egindako kotxe eta moto erakustaldiarekin. Horrez gain, Nuvolari Elkarteko kideek kalejira egin zuten, kotxe eta moto hauek gaurko asko baino hobeto dabilzala argi utziz. Eguraldiak ere lagundu zuen eta guztia espero bezala irten zen. Igandean Osintxun egindako bazkari batekin eman zitzaion amaiera lehen kontzentrazio honi.



Dr. MARTENS

THE



Burberrys
OF LONDON

egizabal

Beherapenak

LOOK



CARTUJANO

PANAMA JACK

Mahaiak San Martzialen

San Martzialetako erromerirako mahaia hartu nahi duten kuadrilek Kultur Etxean eman dezakete izena astelehenetik ostiralera. 1.500 pta. kostako da 8 lagunentzako mahaia, aulki eta guzti. Mahai kopurua mugatua da eta uztailearen 3an San Martzialen banatuko dira.

Dantzari Eguna Antzuolan

Ekainaren 27an Antzuolan ospatuko den dantzari egunean haurrei bazkaria emateko prest zaudetenok (2-3 haur eixe bakoitzean) Itziar denda, Eroski, Mari Karmen Usaindegia edota Izar liburudendan eman dezakezue izena.

Elgetako himnoa jaietan estreinatuko

Datorren uztailearen 2an Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia eta Elgetako Oskarbi abesbatzak gaueko 10.30etan Elgetako Frontoian emango duten kontzertuan, Alfredo Gonzalez Bandako zuzendaria eta Valentin Moñux Orfeoiko kideak (letra) landutako Elgetako himnoa estreinatuko da.



Ikasleek urtean zehar emandako materien azterketa beldurgarria egin dute.

Selektibitatea Bergaran

310 ikasleek Unibertsitatean sartu ahal izateko azterketa egin

Atzo eta gaur ostirala Arrasate, Oñati, Urretxu eta Bergarako 300 ikasle inguruk Unibertsitateara heldu ahal izateko beharrezkoa den selektibitate azterketa egin dute Labegarrietako Kiroldegian.

Bergarako Batxilergo Institutotik 78 ikasleek izan dute azterketa egiteko eskubidea eta beste 67k irailera arte itxaron beharko dute selektibitatea egin ahal izateko.

Goizez eta arratsaldean izan dira selektibitate probak eta guztiek urtean zehar emandako materia gehien azterketa egin behar izan

dute. Emaizak jakinarazten zaienean (astebete barru ziuurrenik) urteko notarekin media egin eta nahi duten edota ahal duten karrera aukeratu ahal izango dute ikasleek datorren ikasturteari begira. Nobedade gisa, aurten irakasle bakoitzak, gehienez 200 azterketa zuzendu beharko ditu eta ikasleek puntuazioaren berri jakin ahal izango dute. Iazko datuei dagokienez, selektibitatea ekainean egin zuten 84 bergararretatik 77k gainditu zuten.

HEMEN
edertze aretoa

Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

ARREGI
Eraikuntza materialeak

Bildegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



Gazteek ofizio ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute.

Lanbide Hastapena programa

16 eta 17 urteko langabetuak lanbide ezberdinak lantzeko

Deba Garaiko Lanbide Hastapena 1993-94 ikasturterako programa kaleratu du. Egitarau honek eskolan jarraitu nahi ez edo utzi duten 16 edota 17 urteko langabetuei lanbide ezberdinetan (haroztegia, mekanika, elektrizitatea lehen aukera eta sukaldaritza, artisaingintza eta ofimatika bigarrena) aritzeko eta prestatzeko aukera eskeintzen die, gazteak makinaria eta material ezberdinen erabileran trebatuz lan-merkatuan sartu nahiz gaikuntza ikastaroetan aritzeko.

Heziketa osoa da eta gazteei,

beren autoestima indartuz, gizarteratzeko eta lanerako prestakuntza ematen zaie, dituzten zailtasunak garatzen lagunduko dien oinarrizko prestakuntza. Era berean, giza-harremanak hobetzen eta astialdiaz gozatzeko aukera edukiko dute.

Iraupena 1993eko azarotik 1994.eko ekainera arte izango da (900 ordu inguru), aurre izen-ematea 15era arte egongo da zabalik eta matrikulazioa irailean egin ahal izango da Bergara, Elgeta edota Antzuolako Udaletxeetan.

Egoitzetan zaharrak hartzeko programa

Gipuzkoako Diputazioak, Gizarte Ongizate sailaren bitartez, bere familiarekin bizi diren zaharrak denboraldi batean Egoitzan egoteko programa martxan jarri du. Honen helburua, oporraldian, zaharrak Bergarako eta Eibarko zaharren egoitzetara joan ahal izatea da. Interesatuak Udaletxeko Gizarte Laguntzailearen Zerbitzura joan beharko dute (astelehen, asteazken eta ostiraletan txanda hartu eta gero) eta bertan eskaerak aurkeztu eta behar duten informazio guztia jaso dezakete.

Musika Eskolako matrikula epea

Bergarako Musika Eskolan ekainaren 21etik uztailaren 23ra arte egongo da zabalik 5 urtetik gorako neska-mutilentzat matrikula-epea. Izena emateko interesa duten guztiak bertara jo dezakete izena emateko, 9.30etatik 13.30etara edota 765780 telefonoan. Nagusientzat kurtsu bereziak izango dira.

IXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

IRUDI

Erlojudenda Bitxitegia

San Pedro 11
☎ 76 51 65

KAILASH

ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrear
diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



Santeri

IZADI

PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Zeresan ugari Fraiskozuriko etxeen inguruan

*Udal Gobernuak (EAJ eta PSE-EE) osatzen duten bi alderdiek iritzi
kontrajarriak gaiaren inguruan*

Arau subsidiarioen behin behineko plana onartu da, baina alderdi politiko bakoitzak jarrera ezberdina izan du. Horretaz aparte, arauak sortu ditu lehen arazoak eta Fraiskozuriko 3, 4 eta 5. atarietako kolektiboak idatzi bat kaleratu du, beraien desadostasuna adieraziz euren etxeak ordenazioz kanpo gelditzen baitira.

Alkatetza hartu gurean gure asmorik garrantzitsuenetarikoa Arau hauek finkatzea izan zen eta orain 3 hilabeteko epe bat zabaltzen da jendeak bere alegazioak egin ditzan, lehen ez zegoen dokumentu bat eztabaidatzeko eta orain badaukagu Fraiskozuri edo beste arazo batzuk konpontzeko orduan zertan oinarritu. Gainera eztabaida eta alegazio prozesua orain hasten da eta

borretaz gain, esan behar da, hirigintza ez dela arauekin bukatzen, alderantziz, basi egiten da".

HB: "Hurrengo hiru hilabeteetan arauari alegazioak egingo dizkiogu".

HBk ere baiezkoa eman dio Arauen behin behineko planari, eta zera esan dute "guk baiezkoa eman diogu dokumentu-

ari, baina horrek ez du esan nahi kapitulu guztiekin ados gaudenik. Adibidez nekazal zoruaren etxebizitzak egiteko Goko Estazio azpian dau den lur sailak proposatzen ditugu, zoru eraikinezinean ez da kontutan hartzen ondare artistikoa, historikoa etb... herri erdian hori nabiko ondo dago lotuta, baina bere inguruan ez bain ondo. San Antonion, Fraiskozurin eta Zubietan or-

Arau Subsidiarioen behin behineko plana onartuta dago, EAJ eta HBren aldeko botuei esker, baina EA eta PSE-EEK ezezkoa eman zuten.

EAJ:
"orain arazoak konpontzerako orduan badaukagu zertan oinarritu"

EAJ pozik agertu da, Arauak onartu direlako eta beraien ustez "Araua egiteko denbora eta lan asko egin dugu Udaleko talde gehienok, gainera

Plenoan onartutako arau subsidiarioek zeresana emango dute datozen hilabeteetan.



denazioz kanpo gelditu diren etxebizitzetako buruz esan nahi dugu ados gaudela, baina horrek arazo sozialak sortzen ditu eta hori bala edo bola konpondu beharko da, bertan bizi diren bizilagunen interesak defendatuz eta bide batez, herriaren interes orokorra kontutan izanda".

EA:
"Araua egiterakoan ez da herriaren iritzia kontutan hartu"

EAK arau subsidiarioen behin behineko planari ezezkoa eman zion esanez "guk ezezkoa arrazoi askorengatik eman dugu, lehenik eta behin ez da kontsultatu Bergarako herriarekin dokumentoa egiteko, gainera herri erdiko lurrak etxeekin beteaz lortzen den gauza bakarra beste toki batzuk hustea da eta etorkizunerako ez da beste gauza batzuk egiteko lekurik izango. Bolun eta Matxiategin emergentziazko irteerak ez dira aurrikusten eta itota gelditzen dira, industrialdean lurrak industrial moduan ari dira kalifikatzen eta guk proposatzen dugu lur horiek nekazal lur moduan izatea eraikuntzak eraiki artean. San Antonio, Zubieta eta Fraiskozuriko etxeei buruz esan nahi dugu ordenazioz kanpo uzteko erabili diren erizpide teknikoak ez direla guretzat pisuzkoak eta proposatzen dugu ordenazio barruan sartzea eta prezio errealean ordaintzea".

PSE-EE:
"Indemnizazioak zehazten ez badira, Araua ezin daiteke onartu"

Azkenik, PSE-EEK



Fraiskozuriko 3,4 eta 5 etxeetako jabeek haserre agertu dira Udalbatzak hartutako erabakiarekin.

Arauari ezezkoa eman dio eta horrela oinarritu du bere ezetza "gu gobernu batzordearen barruan gauden arren, eta Arauaren globalitatean lan egin ondoren Fraiskozuriko egoerara heltzean ez baldin badira indemnitzazioak zehazten uste dugu ezin dela Araua aprobata eta proposatzen diogu Udalari alternatibarik ez dagoen kasuetan Ordenazio barruan uztea".

Fraiskozuriko etxebizitzetako jabeak: "Gure patrimonioak sekulako galerak izan ditu erabaki honen ondorioz"

Asteazkenean, berriz, Fraiskozuri etxebizitzetako lagunen hiru ordezkari prentsaurrea eman zuten Kultur Etxean arazoaren bere ikuspuntua emateko. Beraien esanetan, "gu ez gara hor bizi-tzeagatik errudun. Bedeinkazio guztiekin sartu ginen horra bizitzera (Ur Konfederazioak eta Bergarako Udalak berak

emandako baimenekin) eta orain planteatu den arazoari irtenbidea ematea baino ez dugu nahi. Ezin dugu arazo honekin luzaroan jarraitu".

Fraiskozuriko lagunek etxebizitzak ordenazio barruan uzteko eskakizuna egin zuten. "Guk etxeak ordenazio barruan geratzea nabiko genuke. Hortik abiatuta, Udalarekin nahi beste negoziatu dezakegu eta orduan etxea botatzea erabakitzen bada, Udalak merkatuko prezioan erostea eskatzen dugu. Eta ordenazioz kanpo geratzen bada, ba horrenbeste, ez diezagutela justiprezioa ordaindu, gauza horietan espezializatutako bi etxek prezioa markatu dezatela".

Beren esanetan, arau subsidiarioen kontura kalte izugarria jaso dute dagoeneko Fraiskozuriko 3, 4 eta 5 zenbakietako etxebizitzetako jabeek. "Gure patrimonioak sekulako galerak izan du erabaki honen ondorioz. Gaur eguneko merkatuko prezioak kontutan izanik,


24 etxebizitza eta bertan diren 9 komertzioaren artean, 1.000 milioi pta. ingurutan kalkulatzen dugu".

Lehen bait lehen irtenbide bat bilatu nahi dute: "guk ez dugu Udalaren lana oztopatu nahi eta jakin badakigu etxe horrek sortzen dion problematika. Baina egia da baita ere gure etxeak ez duela inongo arazorik sortarazi azken 30 urtetako uboldeetan. Ur Konfederazioak bazterretik bazterrerara eskatzen dituen 31 metroak ez dira betetzen baina leku askotan arazo bera dago. Zer egin behar dute horrekin?".

Era berean Fraiskozuriko ordezkariak Udalak eskeini dien tratua eskasa salatu zuten, "beste tratua bat merezi dugula" aldarrikatuz. "Akatearen atzetik ibili gara beste instituzio batzuetara joateko baina ez digu lagundu. Kontuak-kontu Araua konpontzeko ate guztiak jotzeko prest gaude, Arartekoarengana ere behar izanez gero".

Astelehenean onartu zituen Udalbatzak Arau Subsidiarioen ardatz nagusiak, herritarren artean banatuko den bideo batean esplikatzen dira. Bideo horretan oinarrituz, herriaren ordenazioa zertan datzan esplikatzen dizugu orrialde hauetan.

Arau Subsidiarioen ardatz nagusiak



ZUBIETA: Zubieta kaleko 1 eta 3 etxeak botaz, San Antonio eta Zubieta kaleak bi norabideetan lotzea ahalbideratuko da.

Lurraren politikan ez da zabalkundezko erizpiderik erabiltzen. Hiri barruko sarea osatu eta hobetzeko, lehendik dauden hutsunak beteko dira, San Antonio-Masterreka zabalguena esate baterako.

Alde historikoari amara emateko pasealeku berri bat proposatzen da: Xabier Maria Munibe plaza berria (Galarretaneko zapateria zegoen lekuan)

eta Arrizuriaga parkea elkartuko dituena. Pasealeku berria, Ibargarai kalea eta ibai ertza elkartuz oinezkoentzako ibilbideak egingo dira. Domingo Irala kalean ere pasealekua egingo da.

Etxebizitzatarako zoruak

Etxebizitzatarako zoruari dagokionez, aparteko garrantzia izango du

gune historikoa berritzeak, izan ere Gipuzkoako bikainenetakoa baita. Martoko, Zubieta eta Ozaetan iharduera puntualak burutuko dira. Urteaga eta San Migelen guztiz egoera txarrean dauden zenbait alde berrituko dira, eraikin berriak planifikatuz eta ibaia estali gabe, libre, utziz. Hirigunetik hurbil dauden Mayc eta Madurako aldeak berkalifikatu

eta etxebizitzatarako zoru bihurtuko dira, familia bakarreko etxebizitzentzako eskaera handia asetzeko. Angiozar eta Osintxuk aurreko planteamenduetan kontutan hartu ez zirenen auzoek, tratamendu berezia izango dute honetan.

Industria

Industri zorutzat kalifikatutako eremuak era-

bat aseta daude momentu hauetan.

Horren lekuko dira San Lorentzo, Mayc, Algodonera, Movilla eta Altos Hornoseko industrial guneak. Libre gelditzen diren bakarrak Altos Hornos aldean Zerrajerak okupatzen zituen lurrak dira, han zenbait eraikin historiko berri eta Industrialdea egiteko mol-datuko dira. Bertan hiri barruan dauden tailer eta industri txikiak kokatu nahi dira eta baita sor litezkeen enpresa berriak ere.

San Juan, Mekolalde, Osintxu, Ola eta Elorregi aldean dauden industri guneak, orain arte babes legalik ez zutenak, behin betirako industri zorutzat berkalifikatu nahi dira.


Pasealeku eta dotazioak

Orohar oinezkoentzako gune guztiak hobetuko dira, baina aipamen berezia merezi du, herriaren bi puntetan dauden bi kirol guneak lotuko dituen oinezkoentzako bideak. Horretarako lehenetik dauden pasealekuak bultzatuko dira, Bonifazio Laskurain pasealekua adibidez.

Bestetik, lehenengo trenbide zaharrean, Santa Marinatik Beheko Estazioan zehar tunela pasatuz Mayceraino doan pasealekua txukunduko da eta Ozaetako kirol gunearekin lotuz ibilbide bat egingo da. Erreka ertze-ko pasealekua ere berri- tu nahi litzateke, horretarako gaur egun pase- abidea oztopatzen duten industri eraikinak botaz (Lasagabasterreko fabri- ka zaharra, adibidez).



**ALTOS HORNOSEKO INDUSTRI GUNEA:
Zerrajerak okupatzen zituen
lurretan hiri barruan dauden tailer
eta industri txikiak kokatu nahi
dira.**



Arau Subsidiarioak



FRAISKOZURI: Lehengo Matadero Zaharraren eta Santa Marinaren artean Deba Ibaiaren ubidea egokitzeko, Fraiskozuri 3, 4 eta 5 zenbakia duten etxeak botako dira.



Maltzaga-Zumarraga eta Maltzaga-Gasteiz trenbide zaharretan ere izango da beste pasealeku bat: Mintegi-Mekolalde, San Lorentzo -Mekolalde-Osintxu, eta Altos Hornos-Elorregi tartetean.

Bergaran nahikoa hiri parke dago eta kokatuta ere ondo daude. Hala ere, horietako batzuk, Arrizuriaga eta Santa Anakoa bereziki, txukundu beharrean daude. Parketarako utzitako beste gune batzuk, berriz, Mintegi Artzamendikoak esate baterako, guztiz moldatu beharra dute hartarako erabili ahal izateko.

Arau Subsidiarioen barruan garrantzi handiko proiektu bat aurrikusten da: Udaletxea handitu eta birgaitzea. Eginkizun hori San Martin plaza antolatuz eta plaza hori San Pedro kaleari lotuz antolatuko da.

Matxiategiko eskolak ere berrituko dira, kirol dotazioak berrantolatu eta handitu egingo dira eta zorua erreserbatuko da gehiago zabaltzeko.

Horretaz aparte Kanposantu berria kokatzeko zorua erreserbatuko da eta gaur egungo lekua berdegunetarako utziko da.

Errepideak

Errepide arloan gure herria garrantzi handiko lotura gunea izan da historian zehar, Maltzaga-Gasteiz eta Beasain-Durango errepideak Altos Hornoseko inguruetan elkartzen dira. Bestalde, Bergaran elkartzen ziren Maltzaga-Zumarraga eta Maltzaga-Gasteiz trenbide zaharrak ere. Barianteari esker Maltzaga al-

detik Deba Garaira eta Gasteizera doan trafikoa ez da hiri erditik pasatzen. Hala ere, bariantea txiki gelditu da duen trafikoko dentsitateko.

Ondorioz, Arau Subsidiarioetan Gasteiz-Maltzaga autobidea, Euskadiko errepide planaren ardatz nagusia eraikitzeko lur erreserba aurrikusida. Beasaindik datorren zirkulazioa San Antonio bertaraino sartzen da, orain herri barruan oker handia sortuz. Hori konpontzeko bariante berri bat egingo da, Zumarratik datorren trafikoa herri barrutik ez pasatzeko (bariantea San Migel azpian tunel batetatik joango da eta Martokua, Zubiaurre, Ozaeta eta Ibarra atzekaldeak zeharkatuz Arrasaterako bidea hartuko du).


Herri barruko bide sareari dagokionez Ibargarai kalea luzatzea aurrikusirik dago. Era horretan, Bergarako hiri zabalgunearen ardatz bihurtuko da. Bestalde, Bideberri Zubieta kaleko 1 eta 3 etxeak botaz, San Antonio eta Zubieta kaleak bi norabideetan lotzea ahalbideratuko da. Lehengo matadero zaharren eta Santa Marinaren artean Deba ibaiaren ubidea egokitzeko lanak burutu dira eta ibaiaren hobotze lanei jarraituaz, Fraiskozuriko 3, 4 eta 5 zenbakiak botako dira.

Nekazal gunek

Urbanizagarriak ez diren lurrek tratamendu berezia izango dute, natura, paisaia, nekazaritza, basozaintza eta ehizaren aldetik duten balioari eusteko asmoz.



IBARGARAI:
Ibargarai kalea luzatzea aurrikusia dago. Era horretan, Bergarako hiri zabalgunearen ardatz bihurtuko da.



IRU-BIDE

Gorlako elkarte berri-berria

Iru-Bide elkarteko bazkide diren Jesus Maria Telleria, Ilario Aranzabal eta Manuel Aranzabalek aipatu digutenez, elkarte egitea 14 laguni bururatu zitzaien. Hasiera batean gauza txikiago bat egitea pentsatu zuten, baina konturatu gabe argazkian duzuen elkarte ederra egin zuten. Elkarte Antzuola, Irimo eta Bergarara doazen hiru bideen ondoan dagoenez, Iru-Bide izenarekin bataiatu zuten.

14 bazkide hauek izan ziren beraz elkarte sortu zutenak. Gaur egun ere bazkide kopuru berberak jarraitzen du. Hauetako 10 hasierako horietakoak dira, eta beste 4rak falta direnen semeak. Beraiek aipatu diguten bezala, elkarte hau ez da kaleko beste elkarteak bezalakoak. Beraiek izendatu duten bezala familiarteko elkarte da. Hau da, bazkide direnen emazte eta seme-alabek ere sarrera

librea dute bazkide izango balira bezala.

Elkatea Antzuolako lurretan dago eraikita, baina bazkide guztiak Bergararrak dira. Iru-Bide elkarteko bazkide hauen batazbesteko adina 60 urte ingurukoa da.

Iru-Bide elkarteak urteko 500.000 pzta inguru batzen ditu jan eta edanarekin. Esan digutenez ez da faltarik egoten, lapurtzen dutenean ezik. 3 edo 4 aldiz sartu omen dira elkarte honetara lapurretan egitera. Dirurik ez omen dute izaten elkartean, baina edariak eta horrelakoak eramaten dituzte. Nahiz eta gauza



Iru-bide elkarte.

handirik ez eraman, handiagoak izaten dira sartzeko egiten dituzten kalteak.

Sukaldari trebeak ere badira Iru-Biden. Honako hauek aipatu dizkigute: Lorentzo Aranzabal eta Maximo Etxabe. Oso trebeak omen dira bakailoa eta arroza gertatzen.

Elkartera joateko du-

ten bidearekin ere arazotuzte. Elkarte egin zutenean, hara ez zegoen kotxez joaterik. Gorlara igotzeko dagoen azkenengo errebueta gogorean kantera bat egin zuten Iru-Bideko bazkideek, eta handik jasotzen zuten harriarekin egin zuten bidea. Orain dela gutxi ere ibili dira bidea konpontzeko ahalegintan, baina ezinezkoa omen da dauden zulo guztiak konpontzea. Bidea ez dago bat ere ondo, eta bazkideek esan digutenez, mahaia eta ipini dituztenetik jende ugari ibiltzen da inguruan

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1974.ean.

BAZKIDEAK: 14.

HELBIDEA: Gorla.

PRESIDENTEA: Jesus Maria Telleria.

ELKARTEAREN EGUNA: Abenduak 8.

URTEKO KUOTA: 12.000 pzta.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32

☎ 76 11 50



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Gaur egitekoa zen Bergara K.E.ren Asanblada Orokorrean Alex Garitanoren taldeak Iñigo Zaitegirenari utzi dio testigua. Garitanok elkartearen zuzendaritzan hiru urte eman ondoren, ilusio haundiarekin eta aldaketak egiteko asmoarekin sartzen den talde berriak urtetik-urtera haundituz doan elkarte gidatuko du.

Iñigo Zaitegi, gaurtik aurrera Bergara K.E.ko presidente berria

- Alex Garitano ordezkaturko du.
- Gaur egitekoa zen Asanblada Orokorrearen ondoren.



Alex Garitanok gaur egitekoa zen Asanblada Orokorrearen ondoren Iñigo Zaitegiri utziko dio Bergara Kiroel Elkartearen lehendakariaren testigua.

INGELESA eta FRANTZESA


**Ekainaren 28tik
Uztailaren 16ra**

**Astelehenetik ostiralera
Goizez edo arratsaldez**

BERGARA

INFORMAZIOA:
Begarako UNED
(3. pisua)
☎ 76 06 87

UDAKO
IKASTARO
INTENTSIBOAK



MARGA

MODA san pedro, 22

SASOIKO
JANTZIAK

GERTALDI
BEREZIETARAKO
JANTZI
DOTOREAK



% 25eko deskontuak

**ZATOZI!
ZURE ZAIN GAITUZU!!**

ALEX GARITANO: "3 milioitan murriztu ditugu zorrak"



Alex Garitanok (28 urte) lau urte eman ditu Bergara Kirol Elkartearen. Iñaki San Jose buru zela diruzain aritu zen eta hurrengo hiru urteetan, ostera, elkarteko presidente. Bergara K.E.k izan duen presidenterik gazteenak, Iñigo Zaitegiri utziko dio testigua aste honetatik aurrera.

- Zerk bultzatu zintuen elkartearen sartzera?

- Beñi gustatu izan zait kirola eta batez ere futbola. Bergararen partiduak ikustera sarri hurbiltzen nintzen Agorrosinera. Horrela, Iñaki San José eta Juanjo Arizmendik direktibaren sartzera animatu ninduten...

- Hiru urte izan zara elkartearen buru. Ze balorazio egiten duzu?

- Momentu txarrak izan badira ere, eta pertsona batzuekin problemak izan ditudan arren, balorazio oso positiboa egiten dut. Horrelako kargu batean asko ikasten da, jende ugari ezagutzeko aukera ematen dizu eta.

- Ekonomia mailan zein kirol mailan nola hartu zenuen elkartea eta nola utzi duzu?

- Ekonomia aldetik, orain dela hiru urte presidente sartu nintzenean

elkartek 6 milioitako zorrak zituen eta orain berriz, 3 milioitako zorrak ditu. Azken urte honetan suertea izan dugu Agustin Aranzabalek Realean debutatzeagatik 500 mila pezeta eman baitugu Realak eta bestalde, Agorrosinaren sarrera politik izan ditugu, Aloña Mendiren aurkako partiduan esate baterako. Baina gastuak ere sekula baino haundiagoak izan dira, elkartea osatzen duten lau sailetan inoiz baino diru gehiago gastatu da. Azken urteetan asko haunditu da elkartea.

- Zergatik uzten duzu elkartea?

- Alde batetik, astirik ez daukadalako eta nekatuta nagoelako eta bestetik, momentuan, direktibaren bizpahiru lagun bakarrik gaudelako.

- Amaitu berri den denboraldian, diru gehitxo ez duzue gastatu futbol talde nagusiko fitxajeekin?

- Egia da aurrean egin ditugun fitxaketa batzuk ez dutela errendimendu onegia eman, batez ere

lesioen eraginagatik. Baina guztiz beharrezkoak zitzaizkigun, ez baitugu ahaztu behar orain dela bi urte Primera Regionalera jeitsi ginela. Orokorrean, kanpotik laupabost jokalariekar-tzea ona da. Gainera jendeak uste izan ez arren, fitxaketa merkeak izan dira, ez dugu gehiegi ordaindu eta gainera diru dexente sortu dute.

- Eta Beitiak egindako lana?

- Oso ona izan da, baina talde nagusian zein beharrezkoetan izugarrizko lana egin du. Nik, datorren denboraldiari begira berarekin jarraituko nuke.

- Udalak elkartearen emango dion dirulaguntzaren berri baduzue?

- Ez, oraindik ez. Baimone ustez iaz baino gehiago eman beharko luke. Kontutan hartu behar da elkartearen jokatzeko arduraren gazte guztiak ez dutela ezer ordaintzen.

- Eta Agorrosinaren ingurua birmoldatzeko dagoen proiektuaren berri?

- Ezta. Udalarik gure asmoak agertu genizkion eta Agorrosinaren bi futbol zelai egitea eskatu gendun. Baina Udalararen asmoa bakarra eta bera bakarlar artifizialtzeko da. Hori Bergararentzat gutxi dela uste dut.

Bergarako suhiltzailea

Futbol elkarte guztietan izaten dira. Kanpoan fitxatutako entrenatzaileen porrotak konpontzeko erabiltzen dituzte. Sáez, Molowny, Brionnes..., aski ezagunak dira euren taldeetan egindako lanagatik.

Bergaran Beitiari eman nahi diote lan hori. Jose Luisekin, Eizagirre gasteiztarrek utzitako zulutik atera eta denboraldi amaieran bosgarren sailkatu da Bergara K.E.ko futbol talde nagusia. Datorren urtera begira ez dute karguan utzi, beste lan batzutarako nahi baitu direktiba berriak.

Beitiari minduta dago, hori argi dago. Urteetan elkartearen beheko taldeetan entrenatzaile aritu ondoren, talde haundien ardura nahi zuen.

Bergaran jarraitu nahi du, baina kanpoko beste talde batzuren eskaintza jaso dezake egun gutxi barru: "herrian ez bazaituzte baloratzen kanpora irten behar" adierazi dio BERRIGARRIARI.

Horrela ez bada, gaur egituratzekoa den direktiba berria nortzuk osatzen duten jakin arte ez die Bergara K.E.ko agintari berriei erantzunik emango.



"Arizmendi" proiektua agertu zaigu azkenaldian Alex Garitano-Josetxo Zabaleta bikotearen ordezkotik bakarria. Orain dela gutxi proiektuaren buru bezala Iñigo Zaitegi aurkeztu zaigu. Bera izango da Bergara K.E.ko hurrengo presidentea. BERRIGARAK Juanjo Arizmendirekin hitzegiteko aukera izan du.

- Juanjo, zu izan zara Bergara K.E. ren zuzendaritza aldaketarako aurkeztu den proiektu bakarraren bultzatzaile.

- Bai, baina ez dut neure burua kargu horretan inoiz ikusi. Horregatik jarri ginen Iñigo Zaitegirekin harremanetan.

- Beitiari zergatik ez dituzue jarraitzeko aukerarik eman?

- Beitia aspalditik eza gutzen dugu eta uste genuen beste lan batzuetarako egokiagoa zela, futbol sailaren koordinatzaile nagusi lanetarako esate baterako. Direktibak izango denaren berria izango denaren artean bozketa egin genuen eta gehiengoak ez zuen Beitia aukeratu.

Azkenean, Manu Diaz eta Javi Perezen artean erabaki behar genuen eta azken hau aukeratu genuen.

- Dena dela Beitiak egindako lana izugarria izan da...

- Bai noski, baina harrobia lantzea da gure helburu nagusia eta lan horretarako Beitia da egokiena. Postua eskaini diogu eta bere erantzunaren zai gaude.

- Eta elkarteko beste sailak bultzatu behar al

JUANJO ARIZMENDI: "Jokalarien fitxak jneitsi egingo dira"

dituzue?

- Bai, orain arte baino laguntza haundiagoa eman nahi diegu sail ezberdinei. Eta sail ezberdinen eta direktibaren arteko harremanak bultzatzeko direktibo bat izango da.

- Futbol talde nagusirako fitxaketak egin behar dituzuela entzun izan da...

- Bai, kanpotik jokalaria batzuk ekarriko ditugu, baina ez dugu iazko planteamendurekin jarraituko. Iaz talde nagusian Bergarako sei jokalarik bakarrik zuten Pre-

ferenteko fitxa eta hori ezinezkoa da. Ez dugu Primera Regionaleko taldea ahuldu nahi, horregatik batzuk igo egingo dira eta goiko taldean dauden jokalariekin eta kanpotik ekarritako beste batzuekin 20 bat jokalariz osatutako plantila egingo dugu talde nagusian. Etorkizun hurbilean bertakoekin osatu nahi dugu talde nagusia. Bestalde, argi eta garbi esan nahi dut iaz ordaintzen ziren fitxak ez ditugula aurten ordainduko. Iaz gutxi batzuk ondo kobratzen zuten baina gainontzekoek ez zuten fitxarik kobratzen. Aurten fitxak bajatu, baina denek kobratu dezatela da gure asmoa.

- Bukatzeko nortzuk osatuko dute direktiba?

- Presidente Iñigo Zaitegi izango da, Presidente orde, Edu Rollan; Diruzaina, Bigen Aranzabal; publizitateaz Luis Felipe López arduratuko da, elkarteko sailen arteko harremanez, Miguel Angel Unamuno; Komisio Teknikoa, Bitxor Wagneber eta nik neuk osatuko dugu, Aitor Erañak futbol harrobiaren ardura eramango du, eta kirol materiala, berriz, Roberto Nieto eta German Balanzategik. Emilio Uzin, Angel Izuskiza eta beste batzuk ere direktibako kide izango dira. Aitor Irazola arduratuko da Agorrosingo sarreraz eta hori kontrolatu nahi dugu.

Politika aldaketa

Gaur osatzekoa zen Bergara K.E. ko direktiba berriak politika aldaketa agindu du: dirua hobeto banatuko omen da bai talde nagusiko jokalarien artean eta baita elkarteko sail ezberdinen artean.

Iaz kanpoko fitxajeek izan ezik talde haundiko beste jokalariek ez zuten fitxarik kobratzen. Datorren denboraldiari begira, guztiek antzera samar kobratuko dute, jokalaria batzuen eta beste batzuen artean hainbeste diferentziarik izan gaite.

Fitxaketei dagokienez, zera esan dezakegu:

Aloña Mendin aritu den Ramon Agirrezabal etortzekoa zen baina azken orduan Mondragonek egin dion eskaintza onartu du. Iazko fitxaketei dagokienez, Fran eta Atanok jarraitu egingo dute. Gomez de Segurak beste urte baterako fitxatuko du. Zelaia eta Clementek zer egingo duten zehazteke dago. Alatz Larrañaga eta Xabi Arregiri eskaintza egin diote eta erantzunaren zai gaude. Eibar Urkotik Ibon Larrañaga eta beste bi etorriko dira, Mutrikun eta Kilimonenaritu diren bi jokalaria etor daitezke...



IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

I Taldea		PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
		Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1.	A ZE FLAXA	3	3	0	0	7	2	6
2.	OGIZUN	1	1	0	0	3	1	2
3.	AMOKIBAR	3	0	1	2	4	8	1
4.	OS JARDINEIROS	2	0	1	1	3	4	1
5.	PAOK DE SAN JUAN	1	0	0	1	0	2	0

EMAITZAK

- A ZE FLAXA-PAOK DE SAN JUAN 2-0
- OS JARDINEIROS-AMOKIBAR 2-2

HURRENGO PARTIDUAK

- P. SAN JUAN-OS JARDINEIROS. Astelehena 19.30.
- OGIZUN-A ZE FLAXA. Astelehena 20.30.
- OS JARDINEIROS-OGIZUN. Osteguna 20.30.

II Taldea		PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
		Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1.	MONGATXURRA	2	2	0	0	7	4	4
2.	AMILOTX	2	1	1	0	4	1	3
3.	ARLOTEAK	2	1	0	1	7	4	2
4.	SHAKTALE	1	0	1	0	1	1	1
5.	OSINTXU	3	0	0	3	3	12	0

EMAITZAK

- OSINTXU-MONGATXURRA 2-4
- SHAKTALE-AMILOTX 1-1
- MONGATXURRA-SHAKTALE (Susp) 5-1
- ARLOTEAK-OSINTXU

HURRENGO PARTIDUAK

- SHAKTALE-ARLOTEAK. Asteartea 20.30.
- AMILOTX-MONGATXURRA. Asteazkena 19.30.

III Taldea		PARTIDUAK				GOLAK		PUNTOAK
		Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1.	BILDURBAREK-LAM	3	2	1	0	12	2	5
2.	ALTZASU	2	1	0	1	2	2	2
3.	PIKAPIEDRA	2	1	0	1	4	3	2
4.	EZINLEIKE	2	0	1	1	2	5	1
5.	NAHIKARI	1	0	0	1	1	9	0

EMAITZAK

- EZINLEIKE-BILDURBAREK LAM 1-1
- ALTZASU-PIKAPIEDRA 2-0
- BILDURBAREK LAM-ALTZASU 2-0

HURRENGO PARTIDUAK

- NAHIKARI-EZINLEIKE. Ostirala 20.30.
- ALTZASU-NAHIKARI. Asteazkena 20.30.
- PIKAPIEDRA-BILDURBAREK LAM. Osteguna 19.30.

Beteranoak

		PARTIDUAK				GOLAK		PUNTUAK
		Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurka	Guzt.
1.	BETI ONA	2	2	0	0	5	1	4
2.	TXIPIRON	1	0	0	1	0	2	0
3.	OGIZUN	1	0	0	1	1	3	0

EMAITZAK

• OGIZUN-BETI ONA

1-3

HURRENGO PARTIDUAK

- TXIPIRON-OGIZUN. Ostirala 19.30.
- TXIPIRON-BETI ONA. Asteartea 19.30.

KOMENTARIOA



OSINTXU



ARLOTEAK



MONGATXURRA



Carlos
ARNAIZ
(Arbitroa)

"Talde bakoitzak hiru federatu edukitzean, taldeen maila asko igotzen da. Pikapiedra eta Altzasuren arteko partidua asko gustatu zitzaidan, kalitatezko jokaldiak ikusteko aukera izan genuelako. Arbitratzerako orduan ez dut arazo haundiegirik izan, jendea Ipintzara futboleantzat jotzeko eta denbora pasatzera dator eta. Txapelketa irabazteko aukera gehien dutenen artean, Amilotx, Mongatxurra, Ogizun, Bildurbarek LAM, Altzasu... aipatuko nituzke".

GOLEATZAILEAK

- 4 gol: • I. Etxeberria (Mongatxurra).
- 3 gol: • Manu Diaz (Mongatxurra).
• J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
• R. Agirrezabal (Bildurbarek).
• J.M. Alonso (Osintxu).
• Patxi Osa (Pikapiedra).
- 2 Gol: • I. Unzurrunzaga (A Ze Flaxa).
• A. Narbaiza (Os Jardineiros).
• Gorka Dávila (Altzasu).
• Mikel Azkarate (Amilotx).
• Mikel Larrañaga (Arloteak).



J.L. ETXANIZ

IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA



FS
oto sistema

APPÉNIÉ

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteletako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

LAKOTA O.E.

**BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA**

Amillaga, 1
3. pabiloia
BERGARA

Tfnoa eta Faxe:
76 08 32

**Udan kirolrik egiteko ohiturarik
bai? eta Kirol kanpainen?**



Milagros Lizarralde
50 urte, etxeoandrea

Udan Deban izaten gara eta igerian egin edota pasioan ibiltzen naiz.



Jose Ramon Iturbe
21 urte, langabetua

Urtean zehar eskubaloian jokatzen dut eta udan denboraldirako prestatzen aritzen naiz.



Asier Irizar
15 urte, ikaslea


Uda Kanpainen ez dut parte hartzen. Udan Seminarioa joaten naiz lagunekin kirolean egitera eta baita mendira ere.



Marian Markiegi
25 urte, langilea

Normalean ez dut kirolrik egiten, baina aurten Udalak antolatutako dantza ikastaro batetara apuntatu naiz.

MARKIEGI Automobilak



Leizeaga, 1
(San Lorentzo Pol. Ind.)
☎ 76 35 09

- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

ADI ORAIN:
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)



Markak ez du berotasunik sortzen

Euskal Herrian betidanik norbaiten edo norberaren lana ontzen danean "Marka" hitza erabiltzen zen eta da. Gaurkokerian edo ezjakinean daitzanez erabiltzen dute Errekorra berba. Puntu hau argitu ondoren gatozen geure gaira. Azken boladan jende gutxi joaten da harrijasotzaileok egiten dituzten markak ikustera. Perurenak ETB tarteko egin dituen ekitaldietan aurrez aurre ehun ikusle ez ditu eduki. Saralegik ere azkenengoan Berastegin oso jende gutxi izan zuen. Joseba Ostolatzak duela hilabete bat egin zuen marka Azkoitian eta ia ia inortxo ere ez. Duela aste bat Azkoitian bertan sekulako herri kirol ospakizuna, Goenatxo eta Ostolaza zirelarik eta dozena gutxi batzu ikusle besterik ez.

Gauzak horrela zer egin daitekeen itaundu behar da. Marka absolutoren bat tarteko ez badago ene ustetan markak egiteari uko egin gabe herriko jaietan edo antzerako eskenatokietara eraman behar dira. Jendea gogait eginda dagoela ematen du. Zaletu aditua berau ere aspertuta bezala aurkitzen da. Zer egin? Esan duguna. Herria dagoen tokira bertara eraman. Diru kontuak beste bide batetik erabaki beharko dute. Kirolariak hainbeste lan egin ondoren eskutsik ezin da gelditu. Udaletxea, Aldundia edo Jaurilaritza erakunde ofizial bezala edo entitateak tarteko jarritz, derrigorrez diru ordaina jaso behar du kirolariak. Herriko jaiak aproposak dira. Hiriburuetako jaiak ere bai. Hoiak dira toki edo leku egokiak markak egiteko.

Andres Osa "Sakona"



Hauteskundeak

Hauteskundeak pasa berri direla, botoemalen gogoaz aztertzea ogibide bihurtu dugunok zenbait hausnarketa egin behar izan ditugu azken egunotan euskal hiritarrek emandako botoekin zer esan nahi zuten jakin eta zabaltzeko.

Hasteko, eta beste kontsiderazio batzuk gerorako utziz, espainiar botoaren agerraldi indartsua aztertzea behar beharrezkoa da. Argi eta garbi dago boto kopuru horrek Euskal Herrian bere burua espainiarizat jotzen duen hainbat eta hainbat hiritar dagoela esan nahi duela, eta ez besterik. Argi dago, halaber, une honetan hiritar horiek harro sentitu izan direla eta beste garai batzutako lotsa ahazturik botoa ematera irten direla.

Baina konstatazio honek beste azterketa sakonago batera garamatza. Abertzaleon ikuspegitik espainiarrek sentitu duten arrotasuna kezka bihurtzen da. Abstentzioaren jeitsierak ez ditu alderdi abertzaleak bultzatu eta belaunaldi berrien heltzeak ez du euskal abertzaletasuna indartu. Zergatik? Zer egin ote dute gaizki? Edota, zer ez dugu egin? Hoiak dira galderak. Erantzunak bilatzeko garaia heldua dela uste dut, baina kontuan hartu nazioa izanik estatua inoiz lortu ez duen herriak eguneroko lanean behar diela bere nazionalitateen ardatzei eutsi. Europar ametsa, Madrilekiko koketeoek eta funtzionarizazio negargarriaren euriek gaurko lokatsak bihurtu direlakoan nago.

Martin Garitano

EDEL tapizdenda

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 **BERGARA**

ESPOLON



School of English
BERGARA

Ibargararai, 31
☎ 76 03 53

AURREMATRIKULAK:

- Udako ikastaro trinkoak.
- 93-94 ikasturtea.

MATRIKULAK:

- Uztailaren 1etik 23ra.

INFORMAZIOA:

- Astelehenetik ostegunera. **10.00-12.30.**
- Ostiraletan: **10.00-12.30 eta 14.30-19.00.**

Ibargarai 31, barruko plaza. ☎ 76 03 53

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT

San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39



□ Gutxituen eguna

Joan den urteko arrakasta kontutan izanik, **ATZEGI** Gipuzkoako Atzeratuen Elkarteak aurten ere Altxasun ospatu zuen gipuzkoar gutxitu sikikoen festa larunbatean. Bergarako Txolarte taldea antolatetaz arduratu eta guztia nahi bezala irten zen, lagunartean egun ahaztezin bat igaroz. Gutxituen kolektiboa laguntzen diharduen Txolarte taldeak, lerro hauetatik, **Kukuma** eta **Txalaparta** taldeak, Antzuolako **DYA**, **Altxasu** elkarte eta antolaketan lagundu duten guztien laguntza eskertu nahi du. Datorren urtera arte!!



□ Zabaleta patinetean

Aitor Zabaleta kotxe gidariak kotxea patineteagatik aldatu zuen larunbatean Donostiako Belodromoan ospatutako **Bizikleta Festan**. Bere barketa festako izarretako bat bihurtu ondoren, Zabaletak eta **Diego Garcia** korrikalariak patinete lasterketa bat egin zuten, bergararra Estatuko maratoi errekorunari nagusituz. Badirudi errobera kontutan ez duela etsairik...

ileapaindegia
eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

EGUREN GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

GURIDI Altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02



□ **Urrezko eztaiak**

Berandu bada ere, beste urrezko bikote baten ospakizuna dakarkizuegu aste honetan: **Cristina Mugika** eta **Fermin Agirre** beren urrezko eztaiak bete zituzten pasa den maiatzaren 8an. Zelebratzeko, Monja Zaharretan meza entzun eta ondoren familiartekoekin (beren bi semeak eta 3 ilobak tartean) bazkaria izan zuten Lasa Jatetxean. Cristinak eta Ferminek bidaiatxo bat ere egin dute Fiterora, han lasai-lasai egon eta, platinozko eztaiei begira, indarrak hartzeko asmoz... Zorionak!!


Zertan dihardute ba?

JAVIER AREVALILLO



28 urteko bergarar hau astebukaeran Nizan (Frantzia) jokaturako Triatloi Txapelketan 530. tokian sailkatu zen 1300 partaideen artean, 4 km. igerian, 120 bizikletan eta 32 korrikan egin ondoren.

ANE OLABIDE



Bergara K.E. ko eskubaloi jokalaria honek (golegile nagusia, 12 partidutan 102 gol eginez) astebukaeran Gasteizen jokatu den Euskadiko Jubenil Txapelketan parte hartuko du Gipuzkoako taldearekin.



□ **Irakasleak Berrigaran**

Joan den astean inguruko herrietako historia irakasle talde bat Berrigaran bisitari izan genuen. **Iñaki Mozos** irakasle eta Berrigarako kolaboratzaileak historia arloko euskara-hiztegia lantzeko ikastaro bat eman die eta azken egunean gure herria bisitatu zuten, **BERRIGARAN** paradatxo bat eginaz eta aldizkariaren prozesua gertu-gertutik ezagutuz. Ondoren, **Miguel Angel Alvarez** Bergarako Batxilergo Institutuko irakaslearen eskutik, eskursioarekin jarraitu zuten...

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

Etzan eibartarra?

Ipuuako futbol-zelaixan pasau zan. Ba ziarduten bi ekipoak jo ta su, eta ona emen, zikintasunez, futbolista bat lurrian ziar bota zebela. Arbitrua, barriz, ezer ikusi ez baleu lez. Sekulakua armau zan! Jentia orru ta txistuka eta arbitruaren gurasoekin akordatzan. Onetan, bateronbategi bota zeban futbol zelaira botilla bat.

Beriala esan zeban plaentxiar batek:

- Ori bota dabena eztok eibartarra!
- Zelan dakik ori?
- Ara ba, eibartarra izan bazuan, txanpan botillia jaurtiko juan.

Jugada txarra dala ta

Jokuan ziarduten bi biren kontra. Eibartarra ta plaentziarra alde batetik ta beste bixak ermuatarrak. Alako batian, jokua pil-pil zeguala, eibartarrak ankasartze ikaragarri bat eñ zeban. Geratu jako plaentziarra begira-begira, ta esatetsa:

- I, gauza bat jakiñ nai juat. Ik, "por si acaso", gaztetan edo, artu dok golpe txarren bat buruan?

Pedro Zelaia



Francisco Moreno (betaurrekoduna) eta Angel Hernandez zeno.

HASI DIRA SAN ANTONIO JAIK

Larunbatean, San Antonio Txiki bezperan, honako ekitaldi hauek izango dira: arratsaldeko 5etan, kukañak; ondoren, arratsaldeko 7,30etan Honoriok antolatuta, antxintxiketaldia: Francisco Moreno, gaztea Angel Hernandez "Dracula"ren kontra, Zurragatik buelta zeinek lehenago egin. Lehenengoak minutu bateko aldea emango dio bigarrenari eta irabazleak Algodonera-k emandako trofeo bikain bat jasoko du.

Arratsaldeko 8etan, berriz, Sokatirako lehen Egiluz Saria, Martoko eta San Antoniokoen artean. *La Voz de España*. (1973, ekainaren 14a). Bikuña.

GAZTEA NAGUSI SAN ANTONIOKO LASTERKETAN

Animazio handiz jokatu zen joan zen larunbatean Moreno gaztearen eta Angel Hernandezen arteko lasterketa. Egin beharreko lana Zurragako gurutzera igo eta ondoren San Antoniora itzultzea. Lehenengoak minutuko aldea eman zion Hernandezi baina lasterketa bikaina eginik minutu eta 20 segunduko diferentzia atera zion. Sokatiran, berriz, San Antonioarek erraz irabazi zieten Martokoei.

La Voz de España (1973, ekainaren 19a). Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

ESPEZIALITATEAK:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA:

Irakasle Eskola
☎ 943 / 71 41 57

Iletxo

Ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

BONOFOTOA



M. A. Eikorobereizibar

EDURNE MARTXENA



EDURNE MARTXENA irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian garai batean Gasteiz-Maltzaga trenbidea izan zenaren zati bat agertzen zen. Gaur egun kale bihurtuta dago eta kalearen izena galdetzen genuen. Erantzuna: Urarte kalea. ZORIONAK **EDURNE**ri erantzun zuzena jartzearren.

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____


Saria: 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Uztailak 4 IURRETA

EUSKALDUNON JAIA 93



eman arnasa

EUSKALDUNON
Egunkaria-ri

Gutxituen kirol jaia

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolatuta larunbatean, hilak 19, *Denontzako Kirol Jaia* jokatu da Agorrosingo zelaian 3retatik aurrera. Besteak beste, golf, criquet, jautiketak, arku-tiraketa, baloi erraldoi probak, lasterketak, slaloma, soka-tira, scrach-a edota prezisiozko jokuak izango dira.

Txapeldunak

Muguruza anaiek 22 eta 15 irabazi zieten Aranzeta anaiei Elosuko Otaba Txapelketako beteranoen finalean. Promoziozko kategorian Aspiazu azkoitiarra Redondo bergararrari 18 eta 10 nagusitu zitzaion.

Kirol ezberdinak egiteko aukera Uda Kanpaina 93an

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak 1993.eko Uda Kanpainaren programa kaleratu du. Aurten ere bi txanda izango dira: uztailaren 5etik 18ra lehena eta uztailaren 19tik 30era bigarrena.

Makina bat kirol programatu dira eta, gehienetan adin-mugak egongo badira ere, 5 urtetik aurrerakoek (igeriketa bakarrik) kirol ezberdinak landu ahal izango dituzte: tenisa, jazz dantza, eskalada, mendiko bizikleta, arku tiraketa, patinajea, atletismoa, kainoi jeitsiera, piraguismoa, raftinga, parapentea edota kirol alternatiboak esate baterako.

Prezioei dagokienean bazkideek eta Udal Kirol Zerbitzuko bazkide ez direnek prezio ezberdinak izango dituzte. Adi-



Udal Kirol Zerbitzuak oferto zabala eskeintzen du Uda Kanpaina 93an.

bide gisa, mendiko bizikleta, patinajea eta atletismoa (1.000 bazkideentzat, 1.500 gainontzekoentzat) eta igeriketa, tenisa, jazz dantza, eskalada, kirol alternatiboak eta arku tiraketa (1.500 eta 2.000) izango dira merkeenak eta garestiena, berriz, parapenteko ha-

siera ikastaroa (14.000 eta 14.500). Partaideek erantzunkizun zibilaren asegurua izango dute eta interesatuek Udaleko Kirol Zerbitzura jo beharko dute uztailaren 1a (lehen txandarako) edota uztailaren 15a baino lehen (bigarreneko), goizeko 8etatik 14.30etara.

Euskadiko txapelketa

Bigarren urteko kadeteen Euskadiko Txapelketa-San Antonioko LVI. Txirindulari Saria jokatu zen igandean Bergaran. Irteeran 173 txirindulari ziren eta 131k bete zituzten ibilbideko 69 kilometroak, 37,1 km/orduko abiaduraz. Helmugan Alexander Galarraga elgoibartarra izan zen lehena, Aritz Garaialde bigarrena eta Santiago Larrañaga hirugarren sailkatu zen, lehen bostak gipuzkoarrak izanik. Jende ugari bildu zen San Antonioko helmugan eta aipagarri, era berean, Bergarako Txirindulari Elkarteak burututako antolaketa bikaina.



MAKAILO
Makailau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu
Ibargarai 15

ederJU
ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnos: 76 29 65 BERGARA



Labegaraietako eskola, 1926.

Altos Hornosko eskolako beste talde bat dakarkizuegu aste honetan. Argazki hau 1926. urtearen inguruan ateratakoa da eta bertan agertzen diren mutikoeek 7-10 bat urte izango zituzten orduan. Hara zeintzuk diren. Ezkerretik eskumara:

Beheko ilaran: Silvestre Eraña, Jose Trasobares, Fernando Azkargorta, Paulino Sologaitoa, Felix Bengoa, Pascual Iñarra, Jose Moreno, Bixente Arenaza eta Sebastian Aranguren.

Bigarren ilaran: Teodoro Gaztañares, Pedro Ormazabal, Donato Ormazabal, Ramon Alzelai, Genaro Etxeberria, Jesus Urkiola, Lamberto Pildain, Julian Ena, Pablo Sasiain, Jesus Iturbe eta Jesus Mujika.

Hirugarren ilaran: Juan Askasibar, Moises Bikuña, Martin Osinalde, Francisco Inciarte, Enrique Arrieta, Luis Ibarra, Pablo Narbaiza, Emilio Amasorrain, Lucio Arregi eta Segundo Beitia.

Goiko ilaran: Julia Ramos andereñoa, Martin Sologaitoa, Bitxor Beistegi, Marino Ena, Satur Ormazabal, Roman Igarza, Martin Zabaleta, Ignacio Aranguren, Eustaquio Calvo, Jose Gardoki, Rikardo Kortabarria eta Enkarna (laguntzailea).

Argazkia: Jesus Urkiola

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

MINER

Ardo onak,

ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

ETXEBIZITZA

Jacan udarako apartamentua alokatzen da. ☎ 76 43 98.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69 / 76 13 23.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 42 10.

Matrimonio logela bateko altzariak salgai. ☎ 76 44 27 (gauzez).

Garajea salgai Ozaetan ☎ 76 56 94.

Pisua salgai San Lorentzo 1ean. ☎ 76 27 35.

Garajea salgai Bolun (1.200.000) ☎ 76 25 38

Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai. ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

Garajea salgai Urrats tamera azpian. ☎ 76 57 93.

DENETARIK

Master System II konsola salgai. ☎ 76 03 31.

Citroen AX SS-AH salgai. Berritua. ☎ 78 33 09.

Renault Clio 16 V. SS-AM salgai. ☎ 76 25 91.

SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai. ☎ 76 50 67.

BMW serie 3 kotxea salgai. Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan Madrilera joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Jaietan urrezko pultsera bat galdu nuen. Aurkitu duenari eskertuko nioke nerekin harremanetan jarriko balitz. ☎ 73 05 43.

Datorren ikasturtean Donostiarra joan etorria egunero egiteko autobusa bete nahian gabiltza. ☎ 79 17 72 / 76 51 75.

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta botak (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Paseozko bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Motorrean ibiltzeko kasuko integrala erosiko nuke. Merke bada hobea. ☎ 76 10 04.

Bi mahai eder salgai. Egurrezkoa bat eta kristalezkoa bestea. ☎ 76 35 56.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

4 metroko ADRIA karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauzez).

Haurraren aukl bat salgai. ☎ 76 02 00.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

SEGA Megadrivea salgai. (3 jokurekin). 18.000 pta. ☎ 76 45 21 (Jabi).

OPEL CORSA City, BIAK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

LANA

Bi lagunek propaganda etxez-etxe banatuko lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

Pertsona bat behar dut erderatik euskarara lanak itzultzeko. ☎ 76 03 74.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

Esperientziadun neska batek haurrak zaindu e-dotu etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

Hildakoak

Ascensio Oregi Txurruka
ekainak 15, 95 urte
Josefa Aranzabal Lazkano
ekainak 16, 85 urte

Jaiotakoak

Oihana Alzelai Gil
ekainak 8
Alvaro Regorigo Alonso
ekainak 9
Ane Vicente Fernandez
ekainak 11

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

Bizi nahiak eman dio lore honi mundu zail eta nahasian jaio eta bizitzeko aukera. Borondate kontua. Nahi izatea ahal izatea da. Beste askok bezala, zure ilusio eta ahaleginarekin ezaiozu baietz euskarari uda honetan.

ESAN BAI

UDA IKASTAROA 93

Uztailaren 1etik 28ra arte

5 ordu goizez
Maila guztiak


MATRIKULALDIA

Ekainaren 14etik 25era arte

Prezioa: 5.500 pza (materiala barne)
16 urtetik gorakoentzat
Beka sistema dago

Informazio zehatzagoa:
Mayor información:

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Bidekurutzeta, 27 2.a
BERGARA

 76.44.53

UDAL EUSKALTEGIAK